



Furgoneta eta Autokarabana guztiak erosteko, bankuari mailegu bat eskatu behar egingo genioke. Autoen erosketan 124.760€ dira, hortaz, 130.000€-ko mailegua eskatu egingo genuke. Intersengatik lehenengo urtean %5,75 ordaintzera ateratzen zaigu, eta gainerako 3 urtetan %6,50, guztira 6.135€. Beraz, lehenengo urtean 1.533,75€ ordaindu behar ditugu.

Diru sarrerei dagokionez, 3 denboralditan banatzen dugu urtea: denboraldi altua (uztailaren 1etik irailaren 15era), erdiko-denboraldia (apirilaren 1etik ekainaren 30era) eta denboraldi baxua (azaroaren 1etik martxoaren 31era). Banaketa honek prezioen aldakuntza dakar, denboraldi altuaren kasuan, autokarabana aukeratuz gero, 170€ dira egunero eta furgonetaren kasuan 150€. Erdiko-denboraldian, autokarabana aukeratuta 135€ dira egun bakoitzeko eta furgoneta, ordea, 105€. Denboraldi baxuan, autokarabanarengatik 95€ dira eta furgonetaren kasuan 80€. Sasoi bakoitzean 50 egun saltzea aurreikusten dugu, hori dela eta, 36.750€ espero ditugu.

Urte beteko kalkuluak egin eta gero, 33.194€-ko gastuak izango ditugula kalkulatu dugu. Diru sarrerak ikusita 36.750€ ateratzen zaigu. Beraz, urte horretan 3556€-ko irabaziak izango ditugu.